JARDUKETA IZENA	C3 Inturiako presa eraistea

Zer KBEtan edo Kontserbazio Bereziko Eremutan dihardugun

Leitzaran ibaia

LOTURA NATURA 2000rekin

Inturiako presa eraistea Natura 2000ko plangintza-helburu hauen baitan dago:
- Ibai Korridore Ekologikoa kudeaketarako funtsezko elementuaren 3. helburu operatiboa: "Ibai korridorean oztopoak ezabatzea. Honako jarduketa honekin lotua dago, zehazki: "AP1. Proiektuak prestatu eta gauzatzea, KBEan edo inguruetan erabiltzen ez diren emakidei loturiko oztopoak iragazkortzeko/eraisteko", eta Inturiako presa lehentasunezko helburua da.
- "*Parachondrostoma miegii* eta Komunitate iktikoa oro har" kudeaketarako funtsezko elementuaren 2. helburu operatiboa: "KBEan dauden arrain espezieen gaineko eraginak ezabatzea", Ibai Korridore Ekologikoaren jarduketei lotzen zaiena.

Era berean lotua dago Leitzaran ibaiak izokin arrunta (*Salmo salar*) izateko duen gaitasun potentzialarekin.

KBEko funtsezko elementu onuradunak

Hona hemen:
- Zuzenean KBEa Kudeatzeko Planaren funtsezko elementuontzat da onuragarria: "Ibai Korridore Ekologikoa", "Bisoi europarra (*Mustela lutreola*)" eta "*Parachondrostoma miegii* eta komunitate iktikoa oro har".
- Halaber onuragarria izan daiteke Batasunaren intereseko izokin arrunta espeziarentzat (*Salmo salar*).

JARDUKETA LEKUA ETA UDALERRIAK:

Leitzaran ibaia. Elduaingo udalerria.

Data

2015-2016

Aurrekontua

166.608 €

Lanaren deskribapena - HELBURUAK

Ekintza honen helburu nagusia da ezabatzea bai oztopoa, bai hark sortzen dituen aldaketak.

Lanaren deskribapena - AURREKARIAK

Inturiako presa 13 m da garaieran; beraz, arrainek ezin dute oztopo hori gainditu. Egitura izugarri horrek Leitzaran ibaia zatitzen du, 60 metro luzerako egitura baita bi ibaiertzen artean alderik gorenean.

Horri gehitu behar zaio oztopoak 1.400 metrotan sortu duen urtegia. Tarte horretan, ibaia guztiz aldatua dago. Izan ere, urlasterren eta osinen ordez, ur geldiak daude, ura bildua dago, eta bisoiak, muturluzeak, amuarrainak eta izokinak eta beste espezie nabarmen batzuek urlasterrak eta osinak behar dituzte. Presak, halaber, ibaiertzak eta prozesu natural oso garrantzitsuak aldatu ditu, hala nola sedimentuen zirkulazioa.

Arrazoi horiek tarteko, eta hondakin industrialak direnez, dena eraistea erabaki zen. Prozesua GURATRANS proiektuari esker hasi zen, eta haren baitan, aurreikusitako 4 faseetatik 2 burutu ziren 2013an eta 2014an. Presa mailaka eraistea erabaki zen, ibaia mailaka ere egokitu dadin eraispenak dakartzan

aldaketetara. GURATRANS proiektuaren amaieran, Inturiako presaren altuera 6 metrotan murriztu da, eta azterlanen arabera, ibaiko habitatak eta prozesu naturalak ongi lehengoratzen ari dira.
Lanaren deskribapena – AURREIKUSITAKO LANAK/JARRAIPENEN DESKRIBAPENA
Aurreikuspenen arabera, Inturiako presa bi fasetan bukatuko da eraisten. Fase bakoitzean presaren altuera 3,5 m murriztuko da, ibai-ohera iristeraino. Faseen artean, urtebetea igarotzen utzi beharrean, 5 hilabete baizik ez dira utziko. Hori Plazaolako Bide Berdearen egonkortasunari zor zaio, ibaia bidea higatzen ari baitzen presatik hurbileko tarte batean. Era berean, eremu higatua konpontzea aurreikusia dago.
JUSTIFIKAZIOA Zer lortu nahi dugu? – ESPERO DIREN EMAITZAK
Inturiako presa guztiz ezabatu nahi da, bai eta presari loturiko arazoak konpondu ere, hala nola presaren eraginez kilometro batean baina gehiagotan sortua zen urtegia.



C3: Inturiako presa eraistea